

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Derioko Udala****Derion erroldatuta dauden langabeziak kontratatzen dituzten enpresei diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak. Akatsak zuzentzea.**

Atzeman da akatsak dituela Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 94. zenbakia, 2017/10/10 argitaratutako iragarkiak, Derioko Udalerriko Langabetuak kontratatzeko laguntzak arautzek oinarriari buruzkoa dena. Beraz, honakoa aditzera ematen da:

1. 2. artikuluan 2. atala deuseztatu egin da.

2. 3.3 artikuluan esaten denean: "Txorierri.eu webgunean argitaratzen diren unetik aurrera abiatu ahal izango dira kontratua, 2017ko abenduaren 1era arte", esan behar da "kontratuak abiatu ahal izango dira 2017ko abenduaren 31ra arte". Eta esaten denean "Kontratuak enpresak laguntzetan parte hartzeko eskaera entregatu ondoren egin beharko dira", esan behar da: "Kontratuak enpresak laguntzetan parte hartzeko eskaera entregatu aurretik edo entregatu ondoren egin beharko dira".

3. 3.2 artikuluan esaten denean "Lan eskatzaile dela ulertuko da Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaile gisa dagoena, Alta eta Eskaeraren berritze (LEABD) agiriaren hori frogatzen duena, enplegu eskatzaile gisa alta izatea, dagokion Eskaera instantzia aurkezten eguneko antzinasunarekin gutxienez.", esan behar da: "Lan eskatzaile dela ulertuko da Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaile gisa dagoena, Alta eta Eskaeraren Berritze (LEABD) agiriaren hori frogatzen duena, enplegu eskatzaile gisa alta izatea".

4. 6. artikuluan esaten denean: "Enpresak parte hartzeko eskaera" eta eskatzen diren gainerako dokumentuak oinarri hauek Txorierri.eu webgunean argitaratzen diren egunetik aurrera aurkeztu ahal izango dira, 2017ko azaroaren 1era arte, betiere laguntza jaso dezakeen kontratazioa egin aurretik", esan behar da: Enpresak parte hartzeko eskaera" eta eskatzen diren gainerako dokumentuak oinarri hauek Txorierri.eu webgunean argitaratzen diren egunetik aurrera aurkeztu ahal izango dira eta deialdian adierazten diren egunetan".

5. 12. artikulua deuseztatu egin da.

Derion, 2017ko azaroaren 16an. — Alkatea, Esther Apraiz Fernández la Peña